

KANTU-JOLAS TAILERRA



-Gurasoentzat-

SARRERA



Badira hogeita bost urte jadanik Berbaro Elkarteak euskararen suspertze-lanetan diharduela, batez ere, euskararen erabileran lana eginez eta honetarako espazioak eta baliabideak sortuz.

Gazte arloaren barruan, garrantzi handia du hezkuntza ez-formalak eta horren barruan lantzen diren ekintza eta baliabideek. Hauen artean, kantu-jolasek.

Urteak aurrera joan ahala, eta gizartea aldatzen doan bitartean, kantu-jolasak ere moldatzen, aldatzen, sortzen... joan dira, balioak transmititzeko asmoz: berdintasuna, hezkidetzak, talde-lana, hizkuntza...

Horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu gurasoek kantu-jolasen inguruko ezagutza handitzea eta haien seme-alabekin landuko dituzten abestiek eskaini diezaieketena ezagutzea, beti ere baloreak transmititzeko helburuarekin.

HELBURUAK



- Haurrak euskararekin jarrera positiboa izatea.
- Haur eta gurasoen arteko komunikazioa euskaraz bultzatzea.
- Haur eta gurasoen harremana estutzea.
- Abesti eta kantuen bitartez balioak transmititu eta lantzea.
- Euskara komunikaziorako tresna erabilgarria eta erakargarria bihurtzea.
- Kantu-jolasen bidez, umearen parte-hartzea bultzatzea eta trebetasunak garatzea.

ANTOLAKETA



- Iraupena: 2 ordu, egun bakarrean.
- 3-10 urte bitarteko umeeek dituzten gurasoei zuzenduta. 20 guraso gehienez.

Bi orduko ikastaro honetan, hau izango da jarraituko dugun planteamendua:

- Abestien garrantziaren sarrera teorikoa
- Abesti desberdinen ezagutza
- Egoeren arabera abestia zelan moldatu
- Abesti bakoitza momentu konkretu batera mugatu
- Abestien praktika
- Ideia trukaketa eta zalantzak argitzea
- Abestien inguruko ekintza dinamikoa

Amaitzeko, ikasitakoari jarraipena emateko, erabilitako power point dokumentua emailaz bidaliko zaie parte-hartzaileei abestien letrekin, eta baita CD bat ere doinua eta erritmoa erabilgarri izateko.

AURREKONTUA



2 orduko ikastaroa (2 hezitzaile)

200 €

Oharra:

- * Prezio honi BEZ gehitu behar zaio (%10)
- * Durangaldean egiten diren ikastaroetarako garraioa sartuta dago aurrekontuan. Hortik kanpora egiten direnei, gainontzeko kilometroak gehituko zaizkie.
- * Kontratatzaileak jarri beharreko baliabideak: instalazioak, mahai eta aulkiak, proiektorea eta pantaila.
- * Berbarok jarriko dituen baliabideak: material didaktikoa (power point, fotokopiak eta CDak), ordenagailua eta bestelako materiala (kartulinak, folioak, errotuladoreak, boligrafoak...).
- * Ikastaroaren zabalkundea eta izen-ematea kontratatzailearen esku gelditzen dira.

HARREMANETARAKO :

946202540 / 676468121

gazteak@berbaro.com

www.berbaro.com

